

Maria Igartza
Antzuola, Gipuzkoa (1915)

Maria_Igartza

Aurkibidea

Biografia

Maria_Igartza Kalegoian jaio zen, Antzuolan. Bera kaletarra izan arren, bere aitajauna omen zen baserritarra, Antzuola eta Oñati arteko muga ingurukoa. Aitajauna arotza omen zen; Mariaren aitak, berriz, larrua ontzen lan egiten zuen.

Zintak

ANT-095

- **Proiektua:** Larru ontzea Antzuolan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Asier - Tellabide, Josu
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** DVD
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Aitajauna Afrikako gerran

- **Erref:** ANT-095/003
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:01:29. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Bere aitajauna (aitona) Afrikako gerrara joan zen boluntario. Pentsio bat kobratzeko eskubidea izan zuten, baina aitajaunak ez zuen hori jakin.

2. Aitajaunak aulkiak "ixa"rekin egiten zituen

- **Erref:** ANT-095/004
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Aitajauna (aitona) arotza zuen eta etxetik etxe aritzen zen lanean jostunak ibiltzen ziren bezala. "Ixa" (ihia) erabiltzen zuen jesarlekuak egiteko. Bera ere aritzen zen bere aitajaunarekin batera.

3. Malutaz egindako koltxoiak

- **Erref:** ANT-095/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:05:41. **Bukatu:** 00:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Malutak (artaburuaren estalkia) baserrietan erosi eta koltxoiak egiten zituzten. Josi eta harrotu egin behar izaten ziren. Malutak sartzeko oihalak dendan erosten zituzten.

4. 13 urterekin aulkiak eta besaulkiak egiten

- **Erref:** ANT-095/007
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:07:46. **Bukatu:** 00:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Saskiak egiteko tailerrean, "zesterian" ez zuten saskirik egiten. Aulkiak eta besaulkiak eskuz egiten zituzten, eskumarekin batu eta ezkerrarekin josi. Ihia

(junkoa) erabiltzen zuten. "Ixa" aitajaunak batzen zuen mendian, batu, sikatu eta lana egin. Mariak 13 urte zituen lanean hasi zenean.

5. Gerran ihia ezin ekarri eta lana bukatu

- **Erref:** ANT-095/009
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:12:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

"Zesterian" gerra garaira arte ibili zen Maria. Ihia (junkoa) Japoniatik ekartzen zuten eta gerran Japoniari ateak itxi omen zizkion Francok eta ez zen etortzen ihirik. Aulkien hankak ihizkoak ziren.

6. Kartutxerak eskuz egiten zituzten

- **Erref:** ANT-095/010
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:15:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Gerra garaian aurreko lana utzi eta Telleriaren lantegian hasi zen lanean. Larrutegian ("guarnicioneria") soldaduentzako kartutxerak egiten zituen. Dendena egiten zuten eskuz. Bi jostorratz eta eztena izaten ziren zuten erreminta bakarrak. Arduraduna Lazaro zen, beraiekin zuten hartu-emanaz. Beste askok baino lan gehiago egin arren, ez zuten gehiago kobratzen.

7. Gerrikoak, zelabereak, bala-zorroak, polainak...

- **Erref:** ANT-095/011
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:15:37. **Bukatu:** 00:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleriaren larrutegian ("guarnicioneria") gerrikoak eta zaldientzako uhalak eta zelabereak ("monturak") ere egiten zituzten. Balak gordetzekoak eta guardia zibilentzako polaina beltzak ere egiten zituzten, hari zuriarekin josten zituzten polainak beltzak. Hari alemaniarra erabiltzen zuten, gogorra. Zortzi orduko lanaldia izaten zuten.

8. Lan asko egiten zuten

- **Erref:** ANT-095/013

- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:20:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Elektrizitateko posteetara igotzeko uhalak ere egiten zituzten Telleriaren larrutegian ("guarnicioneria"). Madrilgo komertzialek lanean ikusten zituztenean zioten langileak esplotatu egiten zituztela. Lazaro, arduraduna, gaiztoa eta gogorra zela dio.

9. Arduradun gogorrak

- **Erref:** ANT-095/014
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:20:16. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Tellerian izan zituen arduradun biak gasteiztarak ziren. Apopilo egoten ziren Ondarreko tabernan astean zehar.

10. Herriko gazteria guztia Telleriarenean

- **Erref:** ANT-095/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Herriko gazteria guztia, 60 bat, gehienak neskak, Telleriarenean hasi ziren lanean eta euskaraz aritzen ziren beraien artean. Larrutegian ("guarnicioneria") aritzen ziren gazteak ez larru-ontzean ("kurtiderian"). Emakumezkoak josten aritzen ziren.

11. Makina gabe dena eskuz egin behar

- **Erref:** ANT-095/016
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleriaren larrutegian ("guarnicioneria") zuten makina bakarrenetarikoa

trokela zen, Jose Iñurriagarrok erabiltzen zuen. Lehen josteko makina Lamarianok zapata-dendan zuena izan zen, handik eroan zuten bertara. Maria josteko makina horretan lanerako eskularruak josi zituen.

12. Emakume asko urrutitik etortzen ziren lanera

- **Erref:** ANT-095/017
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:25:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Emakume asko zeuden lanean Telleriaren larrutegian ("guarnicioneria"). Urrutitik etortzen ziren egunero-egunero uda eta negu. Horietako hainbat aipatzen ditu.

13. Zapatuetan be lan eta jaiegunetan kobratu brik

- **Erref:** ANT-095/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:29:35. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleriaren larrutegian ("guarnicioneria") jaiegun bakarra domeka zen, baina jai hartu behar izanez gero, jai hartzen zuten kobratu barik.

14. Lanean ezin denbora alferrik galdu

- **Erref:** ANT-095/020
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:32:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleriaren larrutegian ("guarnicioneria") komunera joateko ez zuten baimenik eskatu behar, baina ezin zuten denbora edozelan galdu, eguneko kartutxera kopuru bat egin behar izaten zuten-eta. Denek zuten kategoria berbera lanean.

15. Lan gehiago egin arren soldata bera

- **Erref:** ANT-095/022
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:32:28. **Bukatu:** 00:33:34

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleriaren larrutegian ("guarnicioneria") lanean zebilela, behin Lazarorekin, arduradunarekin, eztabaida izan zuen. Izan ere, Mariak ez zuen ondo ikusten lan kopuru desberdina egin arren denek soldata bera kobratzea. Berak 22 bat kartutxera egiten zituen eguneko.

16. Sindikatuan gauza onik ez

- **Erref:** ANT-095/023
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:35:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Bere garaian bazeuden sindikatuak, baina ez omen zuten ezertarako balio, nagusiarekin zuten harremana zatartzeko bakarrik. Behin jo zuten sindikatura eta ez zen esperientzia atsegina izan. Lankideen arteko harremanak oso onak ziren.

17. Lanean arrosarioa errezatzen

- **Erref:** ANT-095/024
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:35:13. **Bukatu:** 00:36:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleriaren larrutegian ("guarnicioneria") lanean zebilela, lankideak berriketan aritzen zirela aitortzen du. Emakume bat arrosarioa errezatzen aritzen zen eta beraiek erantzun egiten zioten.

18. Telleria lantegia itxi zutenekoa

- **Erref:** ANT-095/029
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:42:32. **Bukatu:** 00:43:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

48 urte zituela utzi zuen Telleria lantegia Olaranera joateko. Hurrengo urtean itxi zuten Telleria larrugintza-lantegia, nagusiak erretiroa hartu behar zuelako. Azken hiru langileak zeintzuk izan ziren gogoratzen du.

19. 48 urterekin Olaran lantegira

- **Erref:** ANT-095/030
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:43:38. **Bukatu:** 00:45:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

48 urtetatik 65 arte Olaran lantegian egon zen. Oinetakoen azpian egiten zituzten. Makinetan eta biltegian aritu zen.

20. Hainbat antzuolar Bilbon preso

- **Erref:** ANT-095/032
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:45:36. **Bukatu:** 00:46:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Antzuolan Gerra Zibilean bi aldeetako jendea ibili zen. Elizan armak aurkitu zituzten eta hainbat lagun eraman zituzten Bilbora, Larrinagako kartzelara.

21. Gerran soldaduak etxeetan

- **Erref:** ANT-095/033
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:46:53. **Bukatu:** 00:49:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Telleria larrugintza-lantegiko seme bat gerran hil zen zalditik jausita. Soldaduak etxe ezberdinetan egon ziren, beraienean bi nafar.

22. Emakumeek ez zuten San Simon ospatzen

- **Erref:** ANT-095/034
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:49:01. **Bukatu:** 00:50:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Urriaren 28a, San Simon egunez, izaten zen larrugintzan ari zirenen eguna. Emakumezkoek ez zuten ospatzen. Gizonezkoak mezara joaten ziren eta Ondarreko tabernan buzkantzak jan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com